

Plan Estrategikoa

Azken bi ohar buletinetan, Plan estrategikorako ekarpenak eskatu dizkizuegu. Bete beharreko galdetegiarekin ezusteko bat gertatu zaigu eta erantzunak galdu ditugu. Horregatik, aurrez galdetegia bete zenutenoi barkamena eskatu eta, arren, berriro galdetegia berriz betetzea ere eskatu nahi dizuegu.

Indarrean dugun Plan estrategikoaren aldia amaitzen zaigula-eta, hurrengo prestatzeko unea iritsi zaigu. 2.024-2.028 epealdirako Plan Estrategikoa prestatzen hasiak gara eta [galdetegi](#) honen bitartez, Udarregi Ikastolak zuen ekarpenak jaso nahi ditu. Zer nolako hobekuntzak eskuratu nahi zenituzketen datozen urteetan jakin nahi dugu. Plan Estrategikoa, azaroan, Urteko Batzarrean aurkeztuko da. Anima zaitetze zuen ekarpenak egitera!



Ikastola-eguna

Aurten, **Ikastola-eguna ekainaren 8an** ospatuko dugu eta egun horretako bazkaria antolatzen hasiak gara (500 lagunentzat izango da, gehienez).

Bazkarirako eta ondorengo festarako txartelak eskuratzeko salgai izango dituzue toki hauetan:

- Ikastolako idazkaritzan maiatzaren 27tik 30era, 8:00-13:00 bitarte.
- Agerialdeko jolastokian maiatzaren 29an eta 30ean 16:30-17:00 bitarte.

Hurbilago Ostalaritza Taldearen eskutik jarritako menua:

Ikasleentzat:

- Makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura: **10 €**

Helduentzat:

- Entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ardoa/ura, kafea eta pattarra: **16 €**

*Alergiaren bat izanez gero, txartela erosteko garaian, bertan jakinarazi.

*LH 1etik aurrerako ikasleek beraien taldearekin esertzeko aukera izango dute, hori ere tiketa erosterakoan adierazi behar da.

Bazkal ondoren ikasleen musika emanaldiak izango ditugu arratsaldea girotzeko.



Eskola-kirola 2024/2025

2024-25 ikasturterako Eskola-kirolan parte hartzeko **izen-ematea egiteko epea gaur amaituko da.**

Eskaintzaren ordutegia eta kuoten taula [hemen](#) dituzue.

Izen-ematea egiteko, [galdetegi hau](#) bete behar da.

Edozein zalantza argitzeko idatzi eskolakirola@udarregi.eus helbidera.



OHARRA: Gaizki ulertuak egon ez daitezzen, **kirol-eskolari**

(futbol, eskubaloi, saskibaloi edo rugby) **buruz informazioa**

helarazten da: **2024-25 Ikasturtean** LH 3., 4., 5. eta 6. mailako

ikasleak eskolaren batean izena emateko asmotan badabiltza, jakin **Zirimaran (LH 3-4)**

eta Zirimara multikirolan (LH 5- 6) izena eman behar dutela.

Gipuzkoako edozein haurrek bete behar izaten du arau hori, GIPUZKOAKO FORU

ALDUNDIAK jarritako araua da eta EZ Udarregi ikastolak edo udalak jarritakoa.

Orbeldi euskal dantza taldeak 2024-25 ikasturteko **izen-emateak ekainean** egingo ditu eta ordutegiak honakoak izango dira:

LH1 eta 2: Astelehena eta asteazkena 16:45 - 17:45

LH3: Ostirala 16:45 - 17:45

LH4: Asteartea 16:45 - 17:45

LH5: Asteartea 17:45 - 18:45

LH6:Asteazkena : 17:45 - 18:45

DBH: Astelehena 17:45 - 18:45 eta osteguna: 16:45 - 18:45

Bamboo Dance. Hurrengo ikasturtean, aurten bezala, LH3 eta LH6 bitarteko ikasleentzat Bamboo dance eskaintzeko asmoa daukagu eguerditan eta gure antolakuntzarako 2024-25 ikasturtean zeintzuk duzuen horretarako asmoa jakin behar dugu. Horretarako izen ematea maiatzaren 31 baino lehen egingo da [galdetegi hau](#) betez, mesedez, **maiatzaren 31rako.**

Honen ondoren aurrerago iritsiko zaizue izen-ematearen informazioa.

Jangela-zerbitzuaren erabilera ekainean


Gaur da zuen semeak edo alabak jangela-zerbitzua erabiliko duen edo ez jakinarazteko **azken eguna.** Horretarako, mesedez, idazkaritzan jakinarazi usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz.

Bide batez, etxera bakarrik joateko baimena duen edo ez ere adierazi.



Arratsaldeko zaintza ekainean

Ekainean zuen semeak edo alabak arratsaldeko zaintza-zerbitzua (14:30etik 16:30era) erabiliko duen jakinarazteko **azken eguna gaur da**. Zerbitzuak aurrera egin ahal izateko gutxieneko taldea osatu beharko da. Zerbitzuaren kostua **65 €** izango da. Horretarako, mesedez [galdetegi hau](#) bete.



Ibilaldia 2024

Igande honetan, Bizkaiko ikastolen aldeko **ibilaldia** festa ospatuko da Getxon.

[Informazio gehiago...](#)

Getxo kokatzeko... <https://www.guremapa.eus/>



HAUR-HEZKUNTZA

Haur-Eskolako Txerrien gelako bilera pedagogikoa

Datorren **asteazkenean**, maiatzak 29, **17:30ean Txerrien gelan** bilera pedagogikoa egingo da.

*Ez da zaintza zerbitzurik egongo.



Zorriak

HH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Baso-eskola

Datorren astean azkeneko baso-eskolako saioak egingo ditugu. Hori horrela izanda, eskertuko genizueke jantziak ondo garbituta, lehortuta eta poltsa batean sartuta egun hauetan ekartzea:

- HH3: EKAINAREN 4an, asteartea.
- HH4: EKAINAREN 6an, osteguna
- HH5: EKAINAREN 5ean, asteazkena

Zuen seme-alaben jantzia puskatuta baldin badago, jakinarazi irakasleari, mesedez!



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak

LH 1 eta LH 2ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.


Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Ikastolaren egunerako bilera lantalde ordezkarietzat

Maiatzaren 16an, Ikastolaren eguneko bazkaria antolatzeko bilera egin genuen. Bigarren bilera bat egin nahi dugu baina oraingoan lantalde arduradunekin soilik. Horrela, hurrengo bilera maiatzaren 30ean arratsaldeko 16:45etan egingo da Agerialdeko 2. solairuan eta arduradunoi bertaratu zaitezte eskatzen dizuegu.



Sexu-heziketa

Datorren astean, astelehenetik ostegunera, **LH5eko eta LH6ko** ikasleek Sexu heziketako saioak jasoko dituzte.



LH3 irteera kobrantza

Datorren ostiralean, **maiatzak 31**, kurtso amaierako irteeraren 3. kobrantza egingo da. Kostua **33,60 €** da eta honela banatzen da:

- o Irisarriand-era autobusa: 16,60 €
- o Egonaldia: 77,00 €
- o Aurrez ordaindua: - 60 €



Irteerak

❖ LH 1eko ikasleak

Datorren astean, LH 1. mailako ikasleak **Oriora** goaz egun pasa. Eguna eguraldiaren arabera zehaztuko da eta familiei jakinaraziko zaizue.

❖ LH 6ko ikasleak

Datorren astean, **maiatzak 29, 30 eta 31**, LH 6ko ikasleek **kurtso amaierako irteera** egingo dute **Zuhatzara**.

